

calcuta



ondoan

Z^a 34
Iraila 2024

'Dalit eta Santal emakumeen elkarteak indartzeko aliantza feministak eraikitzen'



Calcuta Ondoan GKE duela ia 20 utetatik ari da bultzatzen Men-debaldeko Bengalako herrixketan emakumeak ahalduntzeko pro-zesua. Aurten fase berri bat jarri genuen martxan 'Dalit eta San-tal emakumeen elkarteak indartzeko aliantza feministak eraikitzen' deituriko proiektuaren bidez. Hain justu, proiektuaren helburua da 5.300 emakume Dalit eta tribal baino gehiagoren ahalduntze sozial, kultural, ekonomiko eta politikoa sustatzea.

Proiektu xedea da emakumeen gaitasunak indartzea da, ikuspegi feminista batetik abiatuta. Horretarako, elkarrekin egin dute lan Uda-yanik eta Swayamek, tokiko erakunde aliatuek, genero-indarkeriari aurre egin, parte-hartze politikoa sustatu eta ahalduntze sozioeko-nomikoa garatzeko. Esku-hartzearen ardatza emakumeen autono-mia eta erresilientzia sendotzea izan da, beren komunitateen gara-penean eta beren eskubideen defentsan aktiboki parte hartzeko aukera emanez.

Urte hauetan zehar, antolatu egin dira 5.300 emakume, eta horiek 472 elkarte, 29 federazio eta tokiko 5 GKE sortu dituzte. Prestakuntza-jardueren bidez emakume horiek finantza-kudeaketa, lidergoa, komunikazioa eta eragin politikoko estrategiak jaso dituzte, eta federazioetako eta elkarteetako 1.217 lider baino gehiagorengana iritsi dira. Emakumeen egiturak eta gaitasunak indartzeko eta genero indarkeriaren aurkako borrokan eragiteko funtsezkoak dira Swaya-mekiko aliantza estrategikoa eta ikuspegi feminista. Modu horretan, aldaketa nabarmena lortu nahi da emakumeen bizitzan eta haien komunitateetan.

Proiektuak sentsibilizazio eta eskubideen defentsarako kanpainak ere sustatu ditu, eta horietan, aktiboki parte hartu dute emakumeek. Zehatzago esanda, tokiko 15 kanpaina antolatu dira, besteak beste ondorengo gaiak lantzeko: haurrak zaintzeko zerbitzuak, uraren eta elektrizitatearen hornidura, elikagaiak banatzeko sistema, langile mi-gratzaileen elikadura-segurtasuna.

Urte hauetan zehar, antolatu egin dira 5300 emakume, eta horiek 472 elkar-te, 29 federazio eta tokiko 5 GKE sortu dituzte. Prestakuntza-jardueren bidez emakume horiek finantza-kudeaketa, lidergoa, komunikazioa eta eragin po-litikoko estrategiak jaso dituzke, eta federazioetako eta elkarteetako 1217 lider baino gehiagorengana iritsi dira.



Ahalduntze ekonomikoari dagokionez, hanbait gaitasun landu dira: onddoen ekoizpena, eguzki-lanparen fabrikazioa eta joskitza. Jarduera horiei esker, emakumeek trebetasun eta ezagutza berriak eskuratu dituzte diru-sarrerak sortzeko, independentzia ekonomikoa eta jasangarritasuna sustatuz.

Osasunaren eta ongizatearen arloan, laguntza psikoemotionala eta autozainketa izan dira izpide. Gainera, kanpainak egin dira haurren arteko ezkontzari, pertsonen salerosketari eta POCSO Legeari buruzko kontzientziazio-kanpainen buruz. Guztira, 986 parte-hartzaile egon dira 9 kanpainatan, eta 628 parte-hartzaile haurren abusua prebenitzeko kanpaina espezifikotzat. Jarduera horiek funtsezkoak izan dira genero-indarkeriari eta haurren eskubideen babesari buruzko kontzientzia sortzeko eta jarrera aldaketa sustatzeko.



Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Ingurumenaren Munduko Eguna ere ospatu zuten. Modu horretan, kontzientzia zabaltzen da genero-berdintasuna eta ingurunearen babesaren gainean.

Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Ingurumenaren Munduko Eguna ere ospatu zuten. Modu horretan, kontzientzia zabaltzen da genero-berdintasuna eta ingurunearen babesaren gainean. Jarduerak honakoak izan diren: zuhaitzak landatzea, sentsibilizazio-kanpainak eta ekitaldi kulturalak.



Amrita Das Gupta, Swayam erakunde feminsitako zuzendaria izango da Donostian

Urriaren 19tik 23ra etorriko da Indiatik Amrita Das Gupta. Emakumeak 10 urtetan egin du lan Swayamen, eta duela 22 hilabetetatik da zuzendaria erakunde berean. Swayam Kalkutan egoitza duen erakunde feminista da, eta azken 29 urteetan etengabeko lana egin du genero-desberdintasunari eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari aurre egiteko.

Urriko egun horietarako, Calcuta Ondoan GGKEk hainbat prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak prestatu ditu:



- [Zineforumak](#)

Hainbat zineforum antolatu ditugu Gipuzkoako hainbat herritan, eta Amrita protagonista izango da bertako solasaldietan. Calcuta Ondoan GKEn uste dugu artea gizarte-aldaketa sustatzeko tresna ahaltsua dela. Hare gehiago, kontzientzia sortzeko, elkarizketa sustatzeko eta genero-indarkeria bezalako gai larri baten inguruan mintzatzeko erraminta bat da.

Proiektatuko den dokumentalaren izena da *Malad, bizi ala ez*. Lantzeko den gaia da emakumeek aurkako ingurune batean duten gaitasuna eta adorea. Eskuragarri dugu Youtubeko Calcuta Ondoan kanalean.

- [Espazio feministetan parte hartzea](#)

Urriaren 20an, igandean, parte hartuko dugu Madejasko pentsamendu feministaren VII. jardunaldian. Aurten gaia honako hauxe izango da: Emakumea, desgaitasuna eta indarkeria. Amrita Das Gupta hitzaldi bat emango du topaketaren, genero-indarkeriari Indian duen eraginaren erradiografia bat azaltzeko. Halaber, aipatuko du emakumeen eta desgaitasunaren arteko harremana alderdi anitzeko gaia dela, eta generoa, giza eskubideak, gizarteratzea eta ekitatea barne hartzen duela.

Madejas elkartearen helburua da emakumeei eragiten zaizkien indarkerien inguruan hausnarketa eta ikusgarritasunerako gune bat eskaintzea. Elkarrekin Espainiako eta munduko beste leku batzuetako emakumeek osatzen dute, eta lotura kolektibo handia egin dute, emakumeen adierazpen guztiak ikusarazteko eta salatzeke. 2014an jaio zen proiektu gisa Astigarragan (Gipuzkoa), Harituz elkarteak bultzatuta. Harrezkero, tokiko eta beste autonomia-erkidego batzuetako 350 elkarte baino gehiagoren parte-hartzea lortu dute. Halaber, nazioarteko erantzuna jaso dute, besteak beste, Italia, Errusia, India, Portugal, Mexiko, Ingalaterra, Tunisia, Argentina, Suedia...

- [Genero, sexu- eta lan-jazarpenari buruzko barne-prestakuntza](#)

Calcuta Ondoan-en uste dugu sexu-, genero- eta lan-arloko jazarpenari buruzko prestakuntzak etengabeko prozesua izan behar duela. Eta horrek, antolakundearen kulturaren aldaketak eragingo ditu. Horregatik, barne-prestakuntza antolatu dugu langileentzat eta Calcuta Ondoan GGKEko batzordearentzat. Prestakuntza Amritak emango du ingelesez, eta aldi bereko itzulpena egongo da gaztelaniara, dinamika errazago ulertzeko.

Era berean, uste dugu horrelako prestakuntzek konfiantzako eta komunikazio irekiko giroa sustatzen dutela, funtsezkoa baita inplikaturako pertsonak indarkeriatik kanpoko ingurune atsegin batean senti daitezen.

Ikusi-entzunezko eduki berriak Calcuta Ondoan-en Youtubeko kanalean!



Pozik gaude eskegi ditugulako Calcuta Ondoan-go Youtubeko kanalean eta sare sozialetan Eko-feminismoaren eta Natura Eskubideen I. Topaketan grabatutako bideoak. Zehazki, hurrengoak aurkituko dituzue kanalean: Vandana Shiva (ingelesez-gaztelania itzulpena barne), Susana Borràs eta Dalila Argueta hitzaldi indibidualak. Era berean, hiru hizlarietako parte hartu zuten mahai-ingurua topa dezakezue.

Calcuta Ondoan elkarteko BOLLUNTARIOTZA adin talde guztietako pertsona konprometituek osatzen dute, eta horiek gabe gure lana ezinezkoa izango litzateke. Animatu eta parte hartu!

Micolet-ekin lankidetzatza

Calcuta Ondoan GKEk Micolet ekimenari laguntzea erabaki du. Moda zirkularraren bidez ingurumen-eragina gutxitzea da Micoleten egitekoa; izan ere, dakigunez, ehungintza planetako kutsatzaileenetako bat da.

Bigarren eskua ekonomia zirkularraren modu iraunkorrena da: arropa berriak ez ekoizten laguntzen du, arropa tratatu eta baliabide gehiago gastatu beharrik gabe berrerabiliz. Izan ere, janzki iraunkorrenak lehendik daudenak dira, beraz, ingurumen-inpaktua ez da errepikatuko.

Parte hartzea gustatuko litzaizuke?

Nola funtzionatzen duen azalduko dizugu.

1. Hustu zure armairua!

Calcuta Ondoan GGKErako funtsak lortzeko prestatu kutxa bat Micoleten salgai jarri nahi dituzun arropa, osagarri eta liburu guztiekin, Calcuta Ondoan GGKErako funtsak lortzeko.

2. Eskatu zure bilketa

Micolet-en webgunean, donatzeko bilketa bat hautatzeko aukera duzu. Micolet arduratzen da zure arropa etxean edo hurbilen duzun bilgunean jasotzeaz. Ez zaizu ezer kostakoa!

3. Hasi saltzen eta dohaintzan ematen!

Arropa Micoletara iristen denean, arropa ebaluatzeaz, argazkiak ateratzeaz, salgai jartzeaz... arduratzen dira. Eta saldu ondoren, dohaintza egingo digute.

- Arropa eta osagarrien armairurako zuzeneko esteka: <https://www.recogidasmicolet.com/calcuta-ondoan/>
- Liburuen armairurako zuzeneko esteka: <https://www.recogidasmicolet.com/micobooks-calcuta-ondoan/>

micolet'



Eguneratutako informazio gehiago: www.calcutaondoan.org

Jarraitu:



BAZKIDE IZATEKO HARPIDETZA



Calcuta Ondoan ONGD
c/Maestro Santesteban, 2 B
20003 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 431 849
info@calcutaondoan.org
www.calcutaondoan.org

Izen- abizenak _____
Helbidea _____
Udalerría _____ PK _____
Probintzia _____ NAN _____
T. _____ E-mail _____

Ordainagiriak bankuan edo kutxan helbideratzea
Mesedez, ordain iezaiezue nire kontuaren kontura _____ euro

Aldizkotasun honekin: ☐ Hilero ☐ Hiruhilero ☐ Seihilero ☐ Urtero

Nire kontura ES

☐ Ekarpen :
ES 38 1550 0001 2100 0071 8122 (Fare - Banca ética)
ES 80 2095 5008 22 1062572119 (Kutxabank)

☐ Bizum (Kutxabank-eko APPEan)

Sinadura

Zure ekarpenagatik onura fiskalak eskuratu ahal izango dituzu, onura publikoko elkarte deklaratuak baikara. Beraz, % 30erainoko desgrabazioa egin dezakezu PFEZan, zure kuote-tatik edo dohaintzetatik. Garrantzitsua da zure IFZ edo NANA adieraztea ekarpenak egitean.